

AIZARNAZABALGO UDALA

Iragarkia

Erreglamenduzko jendaurreko erakusketaren epea inolako erreklamazio edo oharpenik egin gabe iraganda, 2009ko urtarrilaren 29eko udalbatzak hartutako hasierako akordioa tinko eta behinbetirako onartuzat hartu da, Aizarnazabalgo udalerrian Igogailuen instalaziorako dirulaguntza emateak arautuko dituen Udal Arautegia, ondorengo testua duelarik:

Igogailuen instalaziorako dirulaguntza emateak arautuko dituen udal arautegia.

1. artikulua. Xedea.

1. Arautegi honek Aizarnazabalgo udalerrian kokaturik dauden ondasun higiezinetan igogailuak jartzeagatik emango diren dirulaguntzak arautzeko xedea du. Dirulaguntza hauek igogailu zerbitzurik ez duten finka edo etxebizitza kolektiboko etxejabeen komunitateak eskatu ahal izango dituzte.

Arautegi honen xede orokorra beraz, etxebizitzetarako ailega-erraztasuna sustatzea da eta mugikortasuna mugatua duten pertsonen bere ohiko etxebizitzarako sarbidea erraztua ikus dezaten laguntzea.

2. Arautegi honetan araututako dirulaguntzen onuradun izan daitezke, hamar urteko aintzintasuna izan eta udal hirigintza baimena lortzeko oztoporik izan gabe, igogailu zerbitzurik ez duten, Aizarnazabalgo finka edo etxebizitza kolektiboko etxejabeak.

3. Xede horretara gehienez ere sei mila (6.000) euro destinatuko dira, 2009 urteko aurrekontu partidaren kargu, arautegi honen Xedapen Gehigarrian disposatutakoaren kalterik gabe.

2. artikulua. Diruz lagundu daitezkeen ekintzak.

Diruz lagundu daitezke, lurzoru hiritarren kokaturik dauden bi edo solairu gehiagokoak izan eta etxebizitza erabilerara zuzenduta dauden ondasun higiezinetan igogailuak instalatzea. Dirulaguntza hauetatik kanpo gelditzen dira igogailu ordezkapen obrak, familia bakarreko edo bi familiako etxebizitzetan igogailuak jartzea, nahiz adosatua nahiz etxe bakarrak, eta lurzoru hiritarrezinean kokaturik dauden instalazioak ere kanpo gelditzen dira.

Diruz lagunduko dira ejekutatu gabe dauden eta hirigintza baimena eskatu eta lortu duten duten proiektu guztiak, eta baita ere hasita eta eraikitzen ari direnak edo/eta bukatuta daudenak beti ere 2009eko hirigintza baimenarekin kontatzen badute.

Etxebizitza mota berdina duten etxe blokeak, soluzio berdina bilatu beharko dituzte.

Dirulaguntza hau xede berdinerako edozein instituzio publiko edo pribatutik lortu daitezkeen beste edozein dirulaguntzarekin bateragarria da, kostea gainditzen duen finanziaioa gertatzen ez den bitartean. Azken hau gertatuko balitz, dirulaguntza dagokion gehieneko limitera murriztuko da.

AYUNTAMIENTO DE AIZARNAZABAL

Anuncio

Transcurrido el plazo reglamentario de información pública sin que se hayan presentado alegaciones, se ha elevado a definitivo el Acuerdo del Pleno del Ayuntamiento de 29 de enero de 2009 por el que se aprobó la Ordenanza reguladora de la concesión de subvenciones para la instalación de ascensores en el municipio de Aizarnazabal cuyo texto literal es el siguiente:

Normativa municipal reguladora de la concesión de subvenciones para la instalación de ascensores.

Artículo 1. Objeto.

1. La presente Normativa tiene por objeto regular la concesión de subvenciones para la instalación de ascensores en inmuebles radicados en el municipio de Aizarnazabal, a la que podrán acogerse aquellas Comunidades de Propietarios de fincas o viviendas colectivas, carentes de dicho servicio.

El objetivo principal de esta Normativa es, por tanto, fomentar la promoción de la accesibilidad a las viviendas y contribuir a que personas con movilidad reducida (física o mayores de setenta años) vean facilitado el acceso a las viviendas que constituyen su residencia habitual.

2. Podrán ser beneficiarios de la subvención regulada por la presente Normativa las Comunidades de Propietarios de fincas carentes de ascensor del municipio de Aizarnazabal o viviendas colectivas, que tengan una antigüedad superior a diez años y se encuentren adecuadas urbanísticamente y sin limitaciones para la obtención de licencia municipal.

3. A dicha finalidad se destinará un máximo de seis mil (6.000) euros con cargo a la partida presupuestaria que tiene habilitada al efecto el Ayuntamiento para el ejercicio 2009, sin perjuicio de lo dispuesto en la Disposición Adicional de la presente Normativa.

Artículo 2. Actuaciones subvencionables.

Son subvencionables las actuaciones de instalación de ascensores en inmuebles ubicados en suelo urbano residencial de dos o más plantas cuyo uso principal sea el de vivienda. Quedan excluidas de estas subvenciones las obras de sustitución de ascensores, la instalación de ascensores en edificios de tipología de villa unifamiliar o bifamiliar, aislada o adosada y las obras en suelo rural.

Serán subvencionables las actuaciones o proyectos sin ejecutar para las que se haya solicitado y otorgado licencia municipal, así como aquellas que estén en curso de ejecución o concluidas siempre que cuenten con licencia municipal otorgada en el presente año 2009.

Aquellas actuaciones que se lleven a cabo en manzanas con una misma tipología de vivienda, requerirán soluciones análogas.

La subvención es independiente de cualquier otra que se pudiese conseguir, para el mismo fin, otorgada por cualquier otra institución pública o privada, siempre que de ello no se derive sobrefinanciación. Caso de producirse ésta se reducirá el importe de la subvención hasta el límite máximo que corresponda.

3. artikulua. Dirulaguntzen gehieneko zenbatekoak.

1. Igogailuak instalatzeko laguntza ekonomikoa aurrekontu orokorraren (BEZ kanpo) %20koa izango da, fondo galdua egingo delarik. Igogailu berri bakoitzeko gehieneko zenbatekoa ezingo da izan sei mila (6.000 €) baino gehiagokoa.

2. Dirulaguntza bakoitzak ezingo du inongo kasutan, onuradurak egin behar duen proiektuaren kostea gainditu; ez bakarrik hartuta ez eta beste Administrazio Publiko edo Pribatuek emandako dirulaguntzekin batera kontatuta.

3. Urtean emango diren dirulaguntzen zenbatekoaren muga, indarreko udal aurrekontuetan ezarritako partidak ezarriko du.

4. Dirulaguntzaz gain, obra hauengatik ez da tasarik ordaindu behar ez eta eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergarik.

4. artikulua. Igogailuak jartzeko dirulaguntzak emateko erabiliko diren irizpideak.

Dirulaguntzagai diren proiektuek edo eskaerak, urteko indarreko udal aurrekontuetan ezarritako partida gaindituko balute, ondorengo irizpideen arabera markatuko da lehentasuna:

— Lehenik gaigabezia (fisikoa edo hirurogeita hamar urte baino gehiago izatea) duen pertsonaren bat duten jabeen erki-degoek.

— Bigarrenik, eskaerak udal sarrera erregistroan zein daten sarrera izan dutenaren arabera.

Aurikusitako aurrekontu orokorretik kanpo gelditzeagatik, deialdi honetan sartzen ez diren eskaerak, hurrengo urterako deialdirako proposatuko dira.

5. artikulua. Eskabideen aurkeztea.

Ekintza burutzen deneko ibilgetuko jabegoa duten pertsona fisiko edo juridikoak eskatu ahal izango dute dirulaguntza.

Jabetza horizontaleko erregimeneko eraikuntzetan, jabe-kide komunitateak, bertako ordezkariak duen norbaiten bidez jardungo dute.

Dirulaguntza eskaerak Udaletxean aurkeztu daitezke, arautegi hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasi eta 2009eko abenduaren 31 arte, Alkateari zuzenduriko eskaeraren bidez. Eskaerari ondorengo dokumentazioa erantsiko zaio:

— Eskatzailearen datuak: Eraikuntzaren jabeen nortasuna, eta jabe bezala eratu izatea, jabe-kide komunitatearen N.I.F zenbakia.

— Jakinarazpenak egiteko helbidea.

— Arautegi hau onartzen denaren eta bertan eskatutako betebeharrak guztiak betetzen direnaren adierazpen formala.

— Obra zehaztapena: Dirulaguntza zein obretarako eskatzen denaren zehaztapena. Dagokion teknikariak idatziriko proiektua edo fakultatiboaren eskuhartzea beharrezkoa ez balitz, aurikusitako obren inguruko memoria, zeinak jaso behar duen zein igogailu mota jarriko den, exekuzio epea eta aurrekontua.

— Jabe-kide komunitateak hartutako erabakiaren kopia, dirulaguntza jasotzeko aurkeztu den obraren exekuzioarekin bat datozela, eta aurrera eramateko konpromezua hartzen dutela, bertan adierazi behar direlarik.

Artículo 3. Cuantías máximas de las subvenciones.

1. La ayuda económica para la instalación de ascensores consistirá en una subvención a fondo perdido del 20% del presupuesto total, IVA no incluido. La cuantía máxima por nuevo ascensor instalado no podrá ser superior a seis mil (6.000 €) euros.

2. Cada subvención, en ningún caso podrá ser de una cuantía tal que, aisladamente o en concurrencia con subvenciones y ayudas de otras Administraciones Públicas o privadas, supere el coste del proyecto a ejecutar por el beneficiario.

3. El número máximo de subvenciones que se concedan al año estará limitado por el importe de la partida habilitada en el presupuesto municipal vigente.

4. Independientemente de la subvención, estas actuaciones se beneficiarán de la exención del pago de las tasas así como del impuesto sobre construcciones, instalaciones y obras.

Artículo 4. Criterios de concesión de ayudas por instalar ascensores.

Si se diera la circunstancia de que el número de solicitudes de subvención fuera tal que la suma de las cuantías máximas subvencionables rebasara la cantidad global prevista para esta convocatoria, se dará prioridad:

— En primer lugar, a los proyectos para comunidades con algún caso de discapacidad (física o mayores de setenta años).

— En segundo lugar, a las solicitudes según fecha registro de entrada municipal.

Las solicitudes o proyectos que no tuvieren cabida en esta convocatoria por exceder de la cantidad global prevista para el año, serán propuestos al año siguiente posterior.

Artículo 5. Presentación de solicitudes.

Podrán solicitar subvención las personas físicas o jurídicas propietarias del inmueble sobre el que se propone la actuación.

En caso de edificios en régimen de propiedad horizontal, las comunidades de propietarios actuarán a través de quien ostente debidamente la representación de la misma.

Las solicitudes de subvención podrán presentarse en el Ayuntamiento, desde el día siguiente a la publicación del anuncio de aprobación de la presente Normativa hasta las 14 horas del día 31 de diciembre del 2009, mediante instancia dirigida al Alcalde. A la instancia se acompañarán los siguientes documentos:

— Datos de solicitante: Identidad de todos los propietarios del edificio y, de estar constituida como tal, número de N.I.F. de la comunidad de propietarios.

— Domicilio a efectos de notificaciones.

— Declaración formal de reunir todos los requisitos establecidos en la convocatoria y aceptación de la presente normativa.

— Obra para la que se solicita la subvención: Proyecto redactado por técnico competente o, en caso de no ser preceptiva la intervención de un facultativo, memoria de las obras previstas que contenga la descripción del tipo de ascensor, plazo de ejecución y presupuesto.

— Copia del Acuerdo adoptado por la Comunidad de Propietarios en el que manifieste su conformidad con la ejecución de las obras para las que se solicita la ayuda y su compromiso de llevar a efecto las mismas.

— Obra baimena eskaeraren kopia, edo kasua balitz, obra baimena emana izan denaren agiria. Obra baimen eskaera dirulaguntza eskaera baino lehen egin den kasuetan, ez da beharrezkoa izango proiektu teknikoaren dirulaguntza espedienterako aurkeztea.

Artikulu honetan aipatzen diren dokumentu edo justifikaziorik aurkeztu ezean, interesdunari hamar eguneko (10) epea emango zaio aurkeztutako dokumentazioko akatsak zuzendu edo dokumentazio gehigarria aurkezteko. Ez balu horrela egingo, bere eskaera bertan behera utzi, etsi egin duela kontsideratu eta besterik gabe artxibatuko egingo litzateke.

6. artikulua. Dirulaguntza emateak.

Alkateak erabakiko du deialdia, gehienez ere dirulaguntza eskaerak aurkezteko epea bukatu eta hurrengo egunean kontatzen hasi eta bi hilabeteko (2) epean.

Erabakia hirigintza batzordeak egindako proposamena entzun ondoren egingo da, eta horretarako aurkeztutako eskaera eta proiektuen inguruko Udal Zerbitzu Teknikoek egingo duten txostenaren edukia kontuan izango da. Erabakia eskatzaile bakoitzari jakinaraziko zaio.

Aipatu epea igaro eta ez bada jakinarazpenik egiten, eskaerei ezezko erantzuna eman zaiola ulertuko da, azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 42.3 artikulua ezarri bezala, aipatu legeak Administrazioari ezartzen dion erabakitzearen obligazioaren kalterik gabe.

7. artikulua. Onuradunen betebeharrak.

Onuradunek bere jabegoko erregimenari dagozkion betebeharrak bete beharko dituzte.

Obra baimenean adierazitako baldintza eta epean egingo dira lanak.

Obra amaitutakoan, beraien zuzendari teknikoak izenpeturiko obra amaiera ziurtagiria aurkeztuko da, edo kasua balitz eta bere eskuhartzea ez balitz beharrezkoa, obra egin duenaren obra amaiera deklarazioa, bi kasuetan dirulaguntza eskatu dutenen oniritzia duen faktura edo azken likidazioa aurkeztu beharko da.

8. artikulua. Dirulaguntzen ordainketa.

Dirulaguntzaren ordainketa obra amaitu, eta ondorengo bi hilabeteko (2) epean gehienez, obren amaierako dokumentazioa aurkeztu eta udal zerbitzu teknikoaren aurretiazko aldeko txostenaren ondoren egingo da.

9. artikulua. Dirulaguntzen ezeztatzea.

Onuradunak hartu dituen konpromezu eta baldintzak ez baditu betetzen, dirulaguntza ezeztatu egingo zaio, horretarako aurrez interesdunari entzunaldia eskainiko zaio eta interesdunak jada laguntza jaso izan balu beraren itzulera eskatuko zaio.

10. artikulua. Errekurtsoak.

Arautegi hau eta beraren ondorioz ematen diren ekintza guztiak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeak ezartzen dituen epe eta moduan inpugnatu ahal izango ditu interesdunak.

— Copia de la instancia de solicitud de licencia y, en su caso, del acuerdo de concesión de la misma. Únicamente en los casos en que dicha solicitud de licencia se hubiera hecho antes o simultáneamente a la solicitud de subvención. En estos casos, los interesados no tendrán que aportar proyecto técnico al expediente de subvención.

En caso de no presentar alguno de los documentos y justificaciones que se señalan en este artículo, se concederá al interesado un plazo de diez (10) días a los efectos de subsanar o complementar la documentación aportada. Si así no lo hiciera, se tendrá por desistido de su petición archivándose sin más trámite.

Artículo 6. Concesión de las subvenciones.

El Alcalde resolverá la convocatoria, concediendo y denegando las solicitudes en el plazo máximo de dos (2) meses contados desde la finalización del plazo de presentación de solicitudes.

La resolución se dictará previa propuesta realizada por la Comisión de Urbanismo, teniendo como base el informe que emitan los Servicios Técnicos Municipales sobre las solicitudes y proyectos presentados, y se notificará individualmente a los interesados.

Si transcurrido el expresado plazo no se hubiera efectuado la indicada notificación, las solicitudes se entenderán desestimadas, a los efectos de lo establecido en el artículo 44 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y de Procedimiento Administrativo Común, sin perjuicio de la obligación de resolver que la citada Ley impone a la Administración.

Artículo 7. Obligaciones de los beneficiarios.

Los beneficiarios habrán de cumplir los requisitos exigibles por las disposiciones aplicables a su régimen de propiedad.

Las obras habrán de realizarse con arreglo a las condiciones y los plazos que se marquen en la licencia.

Finalizadas las obras presentarán el certificado de fin de obra suscrito por el técnico director de las mismas o, en caso de que no haya sido preceptiva la intervención de aquél, declaración de fin de obra de quien la haya ejecutado, en ambos casos acompañado de la factura o liquidación final y del visto bueno de quienes hayan solicitado la subvención.

Artículo 8. Pago de las subvenciones.

El pago de las subvenciones se efectuará, previo informe favorable de los servicios técnicos municipales, una vez finalizada la ejecución de las obras y presentada la documentación de fin de obra correspondiente, en el plazo máximo de dos (2) meses.

Artículo 9. Revocación de las subvenciones.

El incumplimiento de las condiciones y compromisos contraídos por el beneficiario conllevará la revocación total o parcial de la subvención, previa audiencia del interesado y obligará a reintegrar su importe si ya se hubiera percibido.

Artículo 10. Recursos.

La presente Normativa y cuantos actos se deriven de la misma podrán ser impugnados por los interesados en el plazo y forma establecidos por la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

11. artikulua. Interpretazioa.

Arautegi honen interpretazio, aplikazioa eta efektuen inguruan sor daitekeen edozein kezka, Alkatezak erabakiko du, bera baita arautzen diren dirulaguntzen ematea erabakitzen duen organoa.

Xedapen Gehigarri Bakarra.

1. artikuluan jarritako zenbateko orokorra aldatu ahal izango da eskatu diren laguntzak zenbat direnaren arabera eta Udal aurrekontu exekuzioaren ondorioz erabili gabe gelditzen diren aurrekontu disponibilitatearen arabera.

Azken Xedapena.

Arautegi hau behin-betikoz onartu eta bere edukin osoarekin Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Aizamazabal, 2009ko martxoaren 30a.—Aizpea Manterola Salaberria, Alkatea.

(116)

(4037)

Artículo 11. Interpretación.

Cualquier duda que pudiera surgir en la interpretación, aplicación y efectos de la presente Normativa, será resuelta por la Alcaldía, como órgano competente para la resolución sobre la concesión de las subvenciones reguladas.

Disposición Adicional Unica.

El importe global consignado en el artículo 1 podrá ser modificado, teniendo en cuenta la cuantía total de las ayudas solicitadas, en función de las disponibilidades presupuestarias no agotadas que resulten de la ejecución del Presupuesto General Municipal del ejercicio.

Disposición Final.

La presente Normativa entrará en vigor una vez haya sido aprobada definitivamente y al día siguiente de su publicación íntegra en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa.

Aizamazabal, a 30 de marzo de 2009.—La Alcaldesa, Aizpea Manterola Salaberria.

(116)

(4037)